AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

2181

EBAZPENA, 2012ko maiatzaren 17koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, estatu osorako gaikuntza duten Euskal Autonomia Erkidegoko Toki administrazioko funtzionarioen eskalako idazkaritza-kontuhartzailetza azpieskalan sartzeko hautaketa-prozesuan, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda aditzera ematen duena. Hautaketa prozesua 2008ko lan-eskaintza publikoari dagokio.

2012ko otsailaren 1eko Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren Aginduaren bidez, 2008ko lan-eskaintza publikoari dagozkion estatu osorako gaikuntza duten Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Administrazioko funtzionarioen eskalan sartzeko hautaketa-prozesuak zuzenduko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren.

2012ko apirilaren 18ko Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpenaren bidez, hautaketa prozesu honetako onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-behineko zerrenda eman zen aditzera. Era berean, bazterturiko hautagaiei epe bat eman zitzaien, baztertzeko arrazoia eta zuzentzeko gai diren akatsak zuzen zitzaten.

Oinarri orokorretako 5. artikuluak xedatzen duenaren arabera, erreklamazioak aurkezteko epea igarota eta erreklamaziook ebatzita, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak onartutakoen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda argitaratzeko ebazpena emango du. Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, www. ivap.org helbide elektronikoan eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko iragarki-oholetan argitaratuko da.

Behin erreklamazioak aurkezteko epea amaiturik eta erreklamaziook aztertu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– 2008ko lan-eskaintza publikoari dagokion Estatu osorako gaikuntza duten Euskal Autonomia Erkidegoko Toki administrazioko funtzionarioen eskalako idazkaritza-kontuhartzailetza azpieskalan sartzeko hautaketa-prozesuan, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda aditzera ematea.

Bigarren artikulua.– www.ivap.euskadi.net/ope helbide elektronikoan eta ondoren aipatzen diren lekuetako iragarki-tauletan zerrenda honen argitalpena agintzea (aipatutako helbide elektronikoan kontsultak egiteko, NANa eta eskabidearen erreferentzia-zenbakia sartu beharko dira):

a) Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Donostia kalea 1 (Lakua), 01010 PK.

b) Bilbo: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Recalde zumarkalea 18, 48009 PK.

c) Donostia: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, San Bartolome kalea 28, 20007 PK.

d) Oñati: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Unibertsitate Zaharra, 20560 PK.

Hirugarren artikulua.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpena honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean argitalpenaren hurrengo egunetik kontatzen hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta hurrengo artikuluen arabera. Errekurtsoari erantzuna ematen ez bazaio, ezezkotzat hartu beharko da.

Laugarren artikulua.– 2012ko ekainaren 15ean argitaratuko da lehenengo ariketaren data, tokia eta ordua finkatzen dituen Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpena. Ebazpena www.ivap.org helbide elektronikoan eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko iragarki-oholetan argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 17a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.